



FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN ERAKUNDE HARREMANAK KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGUA.

(EXPEDIENTE 01/ 2020)

1.- AURREKARIAK

Basque Team Fundazioaren helburua da "goi-mailako Euskal Kirolaren" garapen egokia sustatzea, nazioarteko goi-mailako kirol-lehiaketetan ordezkari izateko, eta, batez ere, goi-mailako kirol-ekitaldietan, bai eta euskal kirolariek aipatutako lehiaketetan goi-mailako emaitzak lortzeko ere. Gainera, Basque Team Fundazioak hainbat zerbitzu eta tresna eskaintzen dizkie kirolariei garapen integralerako, eta, horretarako, lotura egokia izan behar da gizarte- eta ekonomia-egoeraren parte diren mota guztietako erakundeekin, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoarekin.

Horrek beharrezko egiten du, besteak beste, Fundazioak garatu behar dituen harreman instituzionalak behar bezala planifikatzea eta kudeatzea. Fundazioak ez dauka baliabide propio nahikorik erakundeen arteko harremanak behar bezala planifikatu eta kudeatzeko, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da horiek kontratatzea.

Horregatik, zerbitzu-kontratu bat eskaini nahi da, erakundeen arteko harremanak kudeatzeko, agiri honetan adierazten den moduan.

2.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa, lizitazioaren aurrekontua aintzat hartuta, Patronatuko idazkariak eta Fundazioko koordinatzaileak osatuko dute. Biek ala biek batera edo era mankomunatuan jokatu dute.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau pribatua da, eta jurisdikzio-ordena zibilak eskumena du betearaztean sor daitezkeen gatazkak ebazteko.

Dena dela, kontratu hau azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen (SPKL) III. Liburuko I. Tituluak arautuko du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, fundazio publikoa den aldetik, duen izaera juridikoa dela medio, eta egiten dituen kontratuak direla medio. Halaber, lege honen ondoretarako eta lege horren 3.1.e) eta 3.3.b) artikulua aplikatuz, sektore publikoko fundazioa den aldetik, adjudikatzeko ahalmena du.

Baldintzen Plegu honek kontratu-izaera du eta kontratua gauzatzeko baldintza zehatzak ditu.



4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu honen adjudikaziorako aukera dute jarduteko gaitasuna duten eta kontratatzeke debekurik ez duten pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerritarrek. SPKLren 71.1 artikuluan zerrendatuta daude debekuok. Halaber, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala izan behar dute. Gainera, eskatzen den gaikuntza enpresariala edo profesionala izan behar dute kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko. Ondore horietarako, kontuan hartuko dira SPKLren I. Liburuko II. Tituluaren II. Kapituluaren jasota dauden arauak.

5.- KONTRATUAREN XEDEA

Basque Team Fundazioak erakundeen arteko harremanak kudeatzeko kontratazioa behar du.

6.- ZERBITUZAREN DESKRIBAPENA: KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Kontratuaren pertsona fisiko edo juridiko esleipendunak betebeharrak hauek izango ditu:

- Basque Team-eko Erakunde Harremanetarako Plana diseinatu, kudeatu eta aplikatzea, Euskadiko enpresa- eta gizarte-inguruneari begira.
- Basque Team-en proiektio berezia bere erreferentzia-ingurunean.
- Enpresa-eremuari zuzendutako jarduera interesgarriari buruzko politika garatzea.
- Basque Team-eko kirolarien proiektioa erraztea.
- Kirolarientzako laneratzeko programa garatzea.
- "Baloreetan bat" ekimenaren bidez Basque Teamen balioak zabaltzea ahalbidetuko duten lankidetzako programak eta -ekimenak garatzeko aliantza interesgarriak sustatzea.
- Bat enbaxadoreen jarduerak dinamizatzea eta programatzea.
- Protokoloa eta ekitaldien antolaketa.
- Erakunde babesleekiko harremana.

7. – GAUZATZEKO EPEA

Zerbitzua 2 urtez emango da (2020 eta 2021).

8.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA GEHIGARRIAK

Kontratuaren gauzatzen den bitartean, Basque Team Fundazioak eskubidea izango du prestazioa zuzena dela egiaztatzeke, bai eta kontratua plegu hauetara eta enpresa esleipendunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatzeke ere. Eskaintzak ezingo du



inoiz agiri honetan eskatutakoa murriztu edo mugatu, eta horri dagokionez eskaintzen diren hobekuntza guztiak eskatu ahal izango dira.

Fundazioak kontratu honetan, pleguan eta onartutako eskaintzan zehaztutako lanen baldintzak aldatzeko baimena eman ahal izango du. Aurreikusi gabeko edozein gorabehera fundazio horrek jakinarazi eta, hala badagokio, onartu beharko du.

9.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Lizitazio honen gehieneko aurrekontua eta kontratuaren prezioa 90.000,00 €(laurogeita hamar mila euro) gehi BEZa dira, kontratuaren indarraldi osorako.

Kopuru horrek gehieneko aurrekontua adierazten du, eta horrek erabakiko du zenbateko handiagoko edozein eskaintza kanpoan uztea.

10.- KONTRATUAN ATZERA EGITEKO AUKERA

Basque Team Fundazioak edozein unetan kontratuan atzera egiteko eskubidea izango du, hitzartutako zenbatekoa ordaindu beharrik izan gabe, eskatutako zerbitzuarekin ados ez badago, zerbitzua ez delako eskaini esleipena ekarri duen moduan.

11.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu hau esleitzeko prozedura Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikuluan araututako prozedura ireki sinplifikatua da.

12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazio honetan parte hartu nahi dutenek, beren eskaintza aurkeztuko dute ondoren adierazten den egoitza-elektronikoan, www.contratacion.euskadi.eus. Bi gutunazal elektronikotan aurkeztuko da proposamena, 2020ko otsailaren 18an 15:00ak baino lehen. Ez dira onartuko paperean aurkeztutako eskaintzak.

13.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Eskaintzak aurkezten dituzten enpresek honako alderdi hauek sartu behar dituzte:

A.- 1. gutun-azala – Proposamen administratiboa eta balio-iritziaren mendean dauden irizpideak

Proposamenak honako agiri hauek izan ditu:

1. Jarduteko gaitasuna honako hauekin egiaztatuko da:



A. Jarduteko gaitasuna duela eta kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 71. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, II. Eranskina).

B. Lizitzaile guztiek inskribatuta egon beharko dute Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion autonomia-erkidegoko Erregistro Ofizialean, eskaintzak aurkezteko azken egunean. Inskripzio hori egiaztatzeko, inskripzio-eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Azken kasu horretan, esleipenduna izanez gero, bermea gordailutzeko errekerimendua jasotzean eta emandako epean, honako hauek aurkeztu beharko ditu: eraketa-eskitura, eskaintza sinatzen duen pertsonaren notario-ahalordea, eskaintza sinatzen duen pertsonaren NANA, enpresaren edo erakundearen IFK, eta Gizarte Segurantzarekiko eta enpresak zerga-egoitza duen Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

C. Lizitziara aurkeztu nahi duten pertsona juridiko guztiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte benetako titularra identifikatzeko (Kapitalen zuriketa prebenitzeko Legearen 3. eta 4. artikulua, apirilaren 28ko 10/2010 Legea):

Pertsona juridiko baten kapitalaren edo boto-eskubideen% 25 baino gehiago, zuzenean edo zeharka, duten edo kontrolatzen duten pertsona fisikoen identifikazioa, edo beste bide batzuetatik pertsona juridiko baten kudeaketa kontrolatzen duten pertsona fisikoen identifikazioa, zuzenean edo zeharka. Salbuetsita daude EBko edo hirugarren herrialde baliokideetako merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietateak (III. eranskina).

D) Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan ez badago, lizitzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ordezkaritza egiaztatzeko agiririk:

Ordezkaritza-ahalordearekin batera, ahalordeen kopia aurkeztu beharko da, notariotzakoa edo administraziokoa, nortasun-agiri nazionalarekin batera, edo, hala denean, horren ordez egiten den agiriarekin batera.

2. Espainiako enpresaburuak

Nortasun juridikoa duten enpresak

Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eratzeko eta aldatzeko eskrituraren bidez, hala badagokio, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da; betiere, haien jarduera erregulatzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota. Eta pertsona juridiko horiek pertsona juridikoaren motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egon beharko dira. Edo bestela, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen



Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Autonomi Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Saillkatuen Erregistroan, hala badagokie.

Enpresaburu atzerritarrak

Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetoak:

Dena delako prestazioa emateko gaituta daudela egiaztaten duten enpresak aurkeztu ahal izango dira, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 67. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Europar Batasunaz kanpoko enpresak

Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatueto pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatueto enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

Halaber, obra-kontratua denean, enpresa horrek Espainian sukurtsal bat izan beharko du, eragiketak egiteko ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta, eta sukurtsal hori Merkataritzako Erregistroan inskribaturik egongo da (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 68. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Enpresen denbora baterako elkarteak

Enpresa bi edo gehiago denbora baterako elkarturik agertuz gero lizitazio batean, elkarte osatzen duten enpresaburu bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta ordezkariak egiaztatu beharko ditu, eta agiri pribatuan adieraziko dituzte partaideen izenak eta inguruabarrak, bakoitzak zenbateko partaidetza duen eta kontratuaren indarraldian ordezkariak izango duen pertsona edo entitatea ere (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 69. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Pertsona fisikoak

- Identifikatzeko agiriak



- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

3. Kaudimena

3.1) Ekonomikoa, urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak –eratze-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Gainera, eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin lotutakoak.

3.2) Teknikoa

Honako baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa:

- Gutxienez 5 urteko lanbide-erperientzia Komunikazioaren eta Erakunde Harremanen Zuzendaritzaren eginkizunetan, enpresa-esparruan edo bestelako erakundeetan.

Baldintza hori egiaztatzeko, egindako lan horien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, enpresaren legezko ordezkariak sinatuta.

- Zerbitzu lizitatu ematen duten pertsonen unibertsitate-titulua: komunikazioa edo Informazio Zientziak eta Protokoloa.

Betekizun hori egiaztatzeko, dagozkion titulu ofizialak aurkeztu beharko dira.

4. - Balio-iritzi baten mendeko irizpideak

Proposamenak agiri hauek izan beharko ditu:

- Arlo hauei dagokienez eskainitako lan-proposamena:

- Basque Team-eko Erakunde Harremanetarako Plana, Euskadiko enpresa- eta gizarte-ingurunera bideratua.
- Enpresa-eremuari zuzendutako jarduera interesgarriak.
- Basque Team-eko kirolarien proiektzio-jarduerak.
- Kirolarientzako laneratze-programa.
- "Baloreetan bat" ekimenaren bidez Basque Teamen balioak zabaltzea ahalbidetuko duten lankidetzak-programak eta -ekimenak garatzeko aliantza interesgarriak.
- Bat enbaxadoreen jarduerak.
- Protokoloa eta ekitaldien antolaketa.
- Ekintzak erakunde babesleekin.



- Komunikazio eta Harreman Instituzionalen Zuzendaritzan egindako lanak, enpresa-arloan edo bestelako erakundeetan.

Lizitazio elektronikoa www.contratacion.euskadi.eus burutzerakoan sistemak berak eskatzen dituen pausoak jarraituko dira, eta horietan, balio-iritzi mendeko irizpideen proposamen-agiriak aurkezteko karpeta/bandeja azalduko da. Karpeta horren bidez aurkeztuko da proposamena.

Honako hauek hartuko dira kontuan: kalitatea, berrikuntza, aplikazio praktikoa eta aurkeztutako proposamenen bideragarritasuna.

Lanak edo horiek ikusteko esteka elektronikoak aurkeztu ezean, lizitaziotik kanpo geratuko da.

B.- 2. gutun-azala.- Balio-iritzi baten mendekoak EZ diren irizpideak

1.-**Eskaintza ekonomikoa**, I. eranskin gisa sartutako ereduari jarraituz, eta BEZ banakatuta.

Eskaintza balio anormal edo neurritz kanpokoekin kalkulatzeko, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan eta, era berean, eskaintza anormalki baxuen kasuan, entzunaldia emango da, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dira. 2014ko otsailaren 26koa

2.- **Esperientzia gehigarria**

Egindako lan espezifikoen balorazioa, honako hauek aipatuta: bezeroa, edukia eta gauzatze-urtea Komunikaziorako eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritzan, enpresa-eremuan edo beste erakunde mota batzuetan

Proposamenen alderdi komunak

- Proposamenak gaztelaniaz eta euskaraz idatziko dira.

- Ez dira onartuko hutsuneak, errakuntzak edo ezabaketak dituzten proposamenak, Fundación Basque Team Fundazioaren ustez, eskaintza aintzat hartzeko funtsezkoa dena ulertzen oztopatzeko moduan badaude.

- Lizitatzailerik bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du. Ezingo du bestelakorik aurkeztu beste enpresa batzuekin denbora baterako elkartuta, banaka aurkeztu badu edo batean baino gehiagotan agertu bada. Arau horiek urratzeak hark aurkeztutako proposamen guztiak lizitazioan ez onartzea ekarriko du.



Aurkeztutako agiri guztiak jatorrizkoak izango dira, edo kopia kautotuak.

Notario-agiriak badira, Notarioaren Legeak eta Erregelamenduak legitimazio arloan ezarritakoei jarraituko diete.

Prozesu honetarako Fundazioak Erregistroan jatorrizkoen kopia doi gisa zigilatutako agiriak ere baliozkotzat emango dira.

5. Agiriak ziurtatzea eta kalifikatzea

Kontratazio-Mahaiko idazkariak gutun-azalak jaso eta gero, Kontratazio-Mahaia batzartu egingo da garai eta modu egokian aurkeztutako agiriak aldeztu aurretik kalifikatzeko.

Mahaia, zuzentzekoak diren akatsak edo hutsuneak atzematen baditu aurkeztutako agirietan, ahoz eta idatziz jakinaraziko die interesatuei, eta, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango die lizitatzaillei, zuzenketak egin ditzaten. Horrela ez bada, lizitatzailleak kanpo geratuko dira behin betiko.

Akatsak zuzentzea eskatu zaien enpresa lizitatzailleek horretarako erabilitako agiriak Erregistroan aurkeztuko dituzte, ezinbestean.

Ondoren berriz elkartuko da Kontratazio-Mahaia eta dagokion erabakia hartuko du jaso diren zuzenketak direla-eta lizitatzailleak behin betiko onartzeari buruz.

14.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Presidentea: Elena Etxebarrieta, Fundazioko Komunikazio arduraduna.

Bokalak: Borja Osés, Fundazioko aholkulari juridikoa; eta Lorea Uribarri Berrojalbiz, BASQUE KNOW HOW FUNDAZIOko presidentea.

Idazkaria: Maria Pérez, Fundazioko administrazio arduraduna

15.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA IREKITZEA

Kontratazio-Mahaia jendaurrean irekiko ditu proposamen ekonomikoen gutun-azalak 2020ko otsailaren 21ean, 09:30tan, ondorengo esteka elektronikoaren bidez: https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html .

Kontratazio-Mahaia jendaurrean irekiko ditu proposamen ekonomikoen gutun-azalak 2020ko otsailaren 20an, 09:30tan, ondorengo esteka elektronikoaren bidez: https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html .



16.- BAREMACIÓN DE LAS PROPUESTAS

La baremación de las propuestas realizadas se hará como sigue:

A) Balio-iritzi baten mendean EZ dauden irizpideak:	75 puntos
A.1) Eskaintza ekonomikoa Eskaintza ekonomikorik onena: gehieneko puntuazioa Eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko, puntuaziorik handiena emango zaio zerbitzu bakoitzean eskaintzarik baxuena aurkezten duen enpresa lizitzaileari. Eskaintza horri eskaintzarik baxuena deituko diogu. Lortutako puntuak kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: Gehieneko puntuak (X) bider tarifa bakoitzaren eskaintzarik baxuenaren zatidura lizitzailearen eskaintzatik. Formularen emaitza negatiboa bada, 0 puntuko balorazioa emango zaio.	35 puntos
A.2) Esperientzia gehigarria: Enpresa-eremuko edo beste erakunde batzuetako Komunikazio eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritzaren eginkizunetan izandako lanbide-esperientzia: 8 puntu esperientzia-urte bakoitzeko, 5 urtetik aurrera, gehienez 10 urtera arte.	40 puntos

B) Balio-iritziari lotutako irizpideak: • Enpresa-eremuari zuzendutako jarduera interesgarriak proposatzea: 5 puntu. • Basque Team-eko kirolarien proiektzio-jardueren proposamena: 5 puntu. • "Baloreetan bat" ekimenaren bidez Basque Teamen balioak zabaltzea ahalbidetuko duten lankidetzeta-programak eta -ekimenak garatzeko aliantza interesgarriak proposatzea: 5 puntu. • Bat enbaxadoreen jardueren proposamena: 5 puntu. • Erakunde babesleekin egindako jardueren proposamena: 5 puntu.	25 puntos
--	-----------

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratua burutuko da, Kontratazio-Mahaiak proposatuta, Kontratazio-Organoak kontratuaren adjudikazioa egiten duenean. Kontratazio-Organoak erabakia arrazoitu beharko du mahairen proposamenarekin ados ez badago.

Kontratua, gehienez, 7 egun balioduneko epean adjudikatuko da, plikak jendaurrean irekitzen direnetik zenbatzen hasita.



Kontratuaren adjudikazioa idatziz jakinaraziko zaie lizitatzaillei, posta ziurtatu bidez edo aurretik emandako posta elektroniko bidez.

Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149.2 artikulua ezarritakoari jarraituz, eta adjudikatzeko hainbat irizpide erabili direla, baldintza-agirietan parametro objektibo batzuk jaso beharko dira eskaintza bat anormala dela jotzeko kasuak identifikatzeko. Bada, kontratazio honen xedearen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, nabarmenki baxuegiak dira aurkeztu diren eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoa baino % 20 baxuagoak direnak, eta altuena kanpo geratuko da.

18. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzeko agiria 7 egun balioduneko epean emango da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratistari egotz dakizkiokeen kausak direla medio, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ezin bada, Fundación Basque Team Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake. Aldez aurretik dagokion entzunaldi-izapidea eskainiko zaio interesatuari.

Kontratua pribatua izango da, eta jurisdikzio-ordena zibila eskuduna da kontratua interpretatzean edo aplikatzean sortzen diren gatazkak ebazteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak Fundazioko koordinatzailea izendatuko du kontratuaren arduradun, eta berari dagokio kontratua betearazten dela gainbegiratzea eta erabakiak hartzea nahiz jarraibideak ematea adostutako prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko, betiere dituen ahalmenen baitan.

20. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Sinatzen den kontratua pribatua izango da eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetako klausulak.
- Euskadiko Fundazioen Legeak ezarritakoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratua, terminoak edozein direla ere, hari erantsitako agiriak, pleguak edo Fundación Basque Team Fundazioak adostutakoa betearazteko emandako era



guztietako arauak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko enpresaburua kontratua betetzeko betebeharretik.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da ebazteko eskuduna aldean artean sortzen diren gatazkak, botere adjudikatzailatzat hartzen diren erakundeen kontratu pribatuen ondoreei eta azkentzeari buruzkoak. Halaber, jurisdikzio-ordena zibil hau eskuduna izango da kontratu pribatuak prestatu eta adjudikatzeari eragiten dieten auzi lizkartsuen berri izateko. (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 27.2 art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

21. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Ordainketa hileroko egingo da, adjudikaziodunak faktura aurkeztu ondoren. Egindako ekintzak zehaztuko dira bertan.

Adjudikaziodunak eskubidea izango du hitzartutako prezioa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzetan, benetan egindako eta Fundazioak formalki jasotako lanak emateagatik.

22. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honen xede diren jarduerak zuzenean egingo ditu enpresa adjudikaziodunak. Salbuespenez, Fundación Basque Team Fundazioak baimena eman dezake adjudikazioduna ez den enpresa batek kontratuaren xedeari lotutako langileak edo lanak azpikontratatzeko, SPKLren 215. eta 2016. artikuluei jarraituz. Berariaz onartu beharko da. Ezinbesteko baldintza da enpresa azpikontratistak egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Azpikontratutako enpresak arlo guztietan duen jokaeraren erantzulea enpresa adjudikazioduna da Fundación Basque Team Fundazioaren aurrean: zerbitzuaren kalitatea, entregatzeko epea, bukatzeko epea, datuak erabiltzeari eta informazioari buruzko obligazioak, eta azpikontratutako enpresak gizarte- nahiz zerga-obligazioak betetzea.

23. EGINDAKO LANEN JABETZA

Atal guztietan egiten diren lanak Fundación Basque Team Fundazioarenak dira.

Adjudikaziodunak ezingo du berarentzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanen daturik, ezta lanen edukia argitaratu ere, osorik edo partzialki, Fundación Basque Team Fundazioaren baimen idatzirik gabe. Edonola ere, adjudikazioduna izango da obligazio hau ez betetzearen ondorioz sor litezkeen kalte-ordainen erantzulea.



24. KLAUSULA BEREZIAK

Exekuzio baldintza berezia izango da enpresa esleipendunarentzat, lana burutzeko tresneriaren eta ondasun konstrumigarrien ingurumen kalitatea bermatzea. Eta baldintza berezien betetzea bermatzeko, erantzukizun adierazpena aurkeztuko du enpresa esleipendunak, aitortuaz, zerbitzua exekutatzeko erabiliko den tresneriak eta ondasun kontsumigarriek ingurumen kalitatearen gaineko araudia betetzen dutela.

25. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 319.artikuluaren arabera, Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea zuzenbide pribatuko arauak gidatuko dituzte; SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoen kalterik gabe.

26. LANEN HASIERA

Lanak hasteko data ofiziala kontratua sinatzen den hurrengo eguna izango da.



I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

.....jn./and., adinez nagusia,n
bizi dena, eta NAN zk....., bere izenean edo
..... enpresa ordezkatzuz, helbide soziala
....., eta IFK zk., lehiaketa honetan parte hartzen
duen honek:

“FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN IKUS-ENTZUNEZKO ZERBITZUAK
KONTRATATZEA”

Fundación Basque Team Fundazioak deialdia eginda, honakoa adierazten du:

Konpromisoa hartzen du lehiaketako prestazioa emateko, eskatutako baldintzak betez,
honako prezio honetan:

Zerbitzu-saria.....€
BEZ % 21€
Guztira€

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n

Sin.:



II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jn./and., NAN zk.,ren izenean, IFK zk., helbide soziala, den aldetik, interesatuta dagoela Fundación Basque Team Fundazioak deitutako adjudikazio prozeduran.

Honako honen bidez ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA egiten dut azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen, 140.1 c) artikularen ondoreetarako (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora):

- Ni ordezkatzan nauenak ez duela sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik, SPKLren 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- Egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek hala ezarrita. Konpromisoa hartzen dut betekizun horren ziurtagiria aurkezteko kontratua formalizatu aurretik, kontratazioa arautzen duten Baldintza Orokorren Pleguarekin bat, nire ordezkaria esleipendun izanez gero.
- Esleipendun izatekotan, zerbitzua exekutatzeko erabiliko diren tresneriak eta ondare kontsumigarriek ingurumen kalitatea bermatzeko arauak beteko dituzte.

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n

Sin.:



III. ERANSKINA

Pertsona juridikoen erantzukizunpeko adierazpena

(.....), IFZ (.....), (.....)ko (ahalordedun, zuzendari orokor, administratzaile bakarra) den aldetik, IFZ (.....), eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (.....), zk. (.....), (PK.....), (Herria.....), kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko indarrean dagoen araudiak ezarritakoa betetzeko, honakoa

ZIURTATZEN DU

1 – Egiazkoak direla 10/2010 Legearen Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritako identifikazio formala egiteko aurkeztu diren agirietako datuak. Badago indarrean aurkeztutako informazio guztia:

BAI EZ

2 – Ordezkatzen duen sozietatearen jabetza edo kontrola egitura hauxe dela:

<input type="checkbox"/>	Ez dago bazkiderik / akziodunik % 25etik gorako partaidetza duenik.
<input type="checkbox"/>	Hauxe da % 25etik gorako partaidetza duten bazkideen / akziodunen zerrenda:

BAZKIDEAREN AKZIODUNAREN OSOA	EDO IZEN	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	PARTAI DETZA (%)

PF: pertsona fisikoa / PJ: pertsona juridikoa

3 – Azken finean, kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzeko dudana pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituzten edo kontrolatzen dituzten, zuzenean edo zeharka, pertsona fisikoak, edo estatutu-akordio edo xedapenen bidez edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen dutenak honako hauek direla:

<input type="checkbox"/>	Ez dago pertsona fisikorik kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzeko dudana pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituenik edo kontrolatzen dituztenik, zuzenean edo zeharka, edo beste bitarteko batzuen bidez enpresa horren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen duenik.
--------------------------	--

Hurrengo hauek:

TITULAR IZEN OSOA	ERREALAREN IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	KONTROLA (%)



4 – Administratzaile gisa jarduten dutela Patronatuko kideek (fundazioetarako) edo zuzendaritza-batzordeko kideek (elkarteetarako):

ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Lehen aipatutako administratzaile, patronatuko kide edo zuzendaritza-batzordeko kideren bat pertsona juridikoa izanez gero, adierazi pertsona juridikoaren administratzaileak izendatutako pertsona fisikoaren izena:

SOZIJATEA	ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondoreetarako, honakoa egiten dut.

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n